

Fiskalizatze-Txostena
Informe de Fiscalización

Durangoko Merinaldearen
Mankomunazgoa

Mancomunidad de la
Merindad de Durango

1990-1993



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas



Durango Merinaldearen Mankomunazgoa

Mancomunidad de la Merindad de Durango

1990-93

Vitoria-Gasteiz, 1994ko urriak 10

Vitoria-Gasteiz, a 10 de octubre de 1994



AURKIBIDEA/ÍNDICE

1. SARRERA	2
1.1 Egingandako lana	2
1.2 Durango Merinaldearen Mankomunazgoa	2
2. ONDORIOAK	4
2.1 Iritzia	4
2.1.1 Legezketasuna betetzeaz	4
2.1.2 Gastu publikoaren arazoiketotasunaz	5
2.1.3 Mankomunazgoaren Kontuei buruzko iritzia	6
2.2 Urteko Kontuak	7
2.3 Finantz-egoerari buruzko irizpenak	9
2.4 Barne-kontrolerako sistemei buruzko bestelako irizpenak	11
ARRAZOIBIDEAK	16

1. INTRODUCCIÓN	17
1.1 Trabajo realizado	17
1.2 Descripción de la Mancomunidad de la Merindad de Durango	17
2. CONCLUSIONES	19
2.1 Opinión	19
2.1.1 Sobre el cumplimiento de la legalidad	19
2.1.2 Sobre la racionalidad del gasto público	20
2.1.3 Sobre las Cuentas de la Mancomunidad	21
2.2 Cuentas Anuales	22
2.3 Consideraciones sobre la situación financiera	24
2.4 Otras consideraciones sobre los sistemas de control interno	26

ANEXO

Contratación de servicios, obras y suministros	31
--	----

ALEGACIONES	37
--------------------------	-----------

1. SARRERA

1.1 EGINDAKO LANA

1994ko maiatzaren 4ean Herri-Kontuen Euskal Epaitegi honetan (aurrerantzean, HKEE) Durango Merinaldearen Mankomunazgoan (aurrerantzean Mankomunazgoa), bertako Lehendakariak izenpeturik, auditoretza-lan bat egiteko eskaria jaso zen.

HKEEak, fiskalizatze-lan hau 1994rako oniritzitako Urteko Lan Programaren aldaketa modura sartuaz, baietza eman dio eskariari.

Fiskalizatze-lanak zera besarkatu du:

- 1990etik 1993ra bitarteko lau urtealdietan legezko araudia bete izanaren azterketa.
- 1993. urtealdiko Kontu Orokorraren gaineko finantz-auditoretza; eskuratutako informazioaren arabera komenigarritzat jotakoan, aurreko hiru urtealdietara hedatu da azterketa.
- Mankomunazgoak 1993ko abenduaren 31n duen pilatutako mentsa nola sortu den aztertu eta baita 1994ko uztaillean zein zen bertako finantz-egoera ere.

Egungo Lehendakariak Mankomunazgoaren Batzorde iraunkorrari berriki aurkeztutako Lan Plangintza bat bada, hainbat jardunbide azaltzen dituen eta aurrez finkatutako epeetan gauzatzeko hitza emana duena; jardunbide horiek, maiz, txosten honetan egiten diren gomendioekin bat datoz eta estu-estu betetzeko eskaera luzatzen dugu, Mankomunazgoaren egoera eta jardunbidea zuzenbideratzearen.

Bukatzeko, gure lana mamitzean Mankomunazgoaren Lehendakariak eta bertako langilegoak erakutsitako lankidetzajarrerari aipamen berezia egin nahi diogu.

1.2 DURANGO MERINALDEAREN MANKOMUNAZGOAREN DESKRIAPENA

Durango Merinaldea autonomi nortasuna galdu zuen Euskal Herriko azken eskualdea izan zen. Mendeetan barna, berezko Batzorde Orokorrak Gerediagan egin zituen, eta Foru bere-bereari 1875eko abendura arte eutsi zion, harik eta foru-erregimena haliogabetu zen arte.

Durango Merinaldearen egungo Mankomunazgoa 1971ko otsailean osatu zen, eta indarrean dauden estatutuak 1981. urtekoak dira. Toki Jaurbideari buruzko Oinarriak araupetzen dituen 7/85 Legeak (TJOAL) toki-jaurbidea aldatuz geroztik, estatutuak ez dira oraindik lege-araudi berrira egokitu.

Mankomunazgoa Abadiño, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Garai, Iurreta, Izurza, Mañaria eta Zaldibarko Udalek osatzen dute.

Ematen dituen zerbitzuak eta garatzen dituen egintzak segidan bildutakoak dira, kasu bakoitzean 1993ko aurrekontua, dirulaguntza eta aurrekontu egindako berezko diru-baliabideak eta mankomunazgoan bildutako udalen kuota bitartez osatu beharreko finantzaketa-aldea adierazi dela:



	Milioi-pta.		
	1993ko Aurrek	Durulag eta ber baliabid	Udalen kuotak
Zerbitzu orokorrak eta agente-salak	34	0	34
Zaborrak	199	0	199
Gizarte ongizatea	177	141	36
Egite-bidezko heziketa	73	41	32
Bestelako zerbitzuak betetzea	26	5	21
Lanak atletismo-pista eta tinketea	301	180	121
Estolderia (Uren Partzuergoaren kontura)	59	59	0
Udalkutxa	-	34	(34)
Guztira	869	460	409

Ikus daitekeenez, Zaborren Zerga mankomunazgoan bildutako udalek kudeatu eta biltzen dute, Mankomunitatearen eskuetara hori aldatu ez dela.

Udalkutxatik jasotako dirufondoak bereizirik aurkezten dira, inolako zerbitzu bereziri lotu gabeko dirusarrera baita.

Nolanahi ere, kasu bakoitzean udaletako Osokoek erabakiko dute mankomunazgoko zein zerbitzutan esku-hartu nahi duten eta zeinetan ez. Aparteko kasuetan, mankomunazgora bildu gabeko hainbat udalek Mankomunazgoaren bitartez egiten dituzte hainbat zerbitzu.

Udalen artean Mankomunazgoko gastuak segidan zehazten den moduan finantzatzen dira:

- Gastu orokor eta agente-sailenak, udal bakoitzaren urteko sarrera-aurrekontuen arabera.
- Zerbitzu ezberdinen gastuak, zerbitzu-hartzaile diren udalen biztanle-kopuruaren arabera.

1993ko abenduan langilego-horridura 47 pertsonetakoa zen, horietatik 25 lan langilego finkoa izanik eta 22 aldi baterako lan langilegoa; langile kopururik handiena biltzen duten zerbitzuak zaborra bildu eta desegitearena eta estolderiarena dira.

Estolderia zerbitzuari dagokionez, gastuak Durango Merinaldearen Uren Partzuergoak ordaintzen zituen. Txosten hau mamitu dugun datan, estolderia-zerbitzuko langilegoa partzuergoari behin-betiko atxekitzearen ondorioz, aldi baterako lan langilegoa 13 pertsona gutxiagokoa da.

Mankomunazgoari ezargarria zaion lege-araudia, udalaz gainera toki-erakunde den aldetik, izaera orokorrarekin toki-erakunde guztientzat finkatua dagoen berbera da.

2. ONDORIOAK

2.1 IRITZIA

2.1.1 LEGEKOTASUNA BETETZEAZ

- 1991tik 1993ra bitarteko urteetan, urteko aurrekontua indarra dia duen urtealdiaren azkeneko astean oniritzi da, berez duen ekonomia-jardunaren gaineko plangintza egiteko agiri-izaera guztiz galtzen duela.

Kasu hauetarako finkatuak dauden mugak, aurreko aurrekontua luzatzeko derrigortasunari buruzkoak, ez dira gorde.

1990erako aurrekontua ez zuen Batzorde Orokorrek onartu.

- Ez gastuak ez ordainketak, ez dira gauzatu baino lehen fiskalizatzen, eta dagokion jardute-sail eskumendunak oniritzen dituelako egiaztagiririk ere ez dago; ordainketa-aginduek, orokorrean, ez dute inoren sinadurarik.
- Mankomunazgoak ez du Lanpostuen Zerrendarik ez egin, ezta oniritzi ere (TJOALaren 90. art., Funtzio Publikoaren Birmoldaketarako Legearen 16. art. eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen 16. art. eta hurrengoak). Orobat, fiskalizaziogai izan diren urteetako aurrekontuetatik batean ere ez da aurrekontuzko plantilarik onartu, funtzionari, behin-behineko langile eta lan langilegoarentzat gordetako lanpostu guztiak bildu behar dituen.
- Langilegoak Administrazio Publikora sarbidea izateko legezko bideak ez dira gorde. Berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak bermatuaz langilegoa hautatzeko oinarri izan behar duen Enplegurako Eskaintza Publikoari, ez dio Mankomunazgoak oniritzirik eman fiskalizaziogai izan diren urtealdietan.

Ez da hautapenerako inongo deialdi publikorik egin eta Batzorde Orokorrek ez ditu egindako langilego kontratazioak hitzartu.

Aldi baterako lan langilegoa lan langilego finko bihurtzean lege-iruzurra egin dela uste dugu, batipat, aldi baterako kontratuak mugagabeko bihurtzeko, legeak uzten duen eperik gehienera kontratuak luzatzeko teknika erabiliaz, lege-araubideak galera zuten egintza gauzatzen dela.

- Mankomunazgoaren Idazkaritza-Artekaritza lan-langilegoak betetzen du, legeak agintzen duenaren aurka Estatu nahiz Autonomi Elkarreetan jarduteko gaitasuna duen funtzionariak bete beharrean (TJOALaren 92. art.).

Estatutuek agintzen dute kargu hau mankomunazgoan bildutako Udaletako edozein Idazkarik bete ahal izango duela, baldin eta bete-beteko jarduncan ez badago (ez da berariazko akordiorik hartu honen gainean).

- Ez da Mankomunazgoko Diruzainik izendatu.
- Banku-diruak erabiltzeko oniritzitako sistemak, hau da, baimendutako sei izenpe, horietatik bi edo hiru nahikoa izanik ordainketak egiteko (bigarren aukera hau 1994ko martxoan gauzatu zen), ez du legezko oinarririk. Ordainketek, Idazkari-Artekariak, Lehendakariak eta Diruzainak izenpetuak behar dute izan.

- Zerbitzu publikoak kontratatzeko araudia hautsi egin da orokorrean, esleipen ugari deialdi publikorik egin gabe eta hainbat eskaintza egiteko eskari egin gabe gauzatu baitira. Espedienteak osagabeak dira edota ez dira esistitzen eta akordioetarik asko ez dira erakunde eskumendunak oniritziak izan. (Ikus «Zerbitzu Kontratuak» atala Eraskinean).
- Lanak kontratatzeko araudia maiz ez da gorde, betegabetzerik larrienen artean kontratuen zatikapen, kontratariei mailaketa-sailkapenik eskatu ez eta birplanteaketaren egiaztaketarik ez egin izana ditugularik.

Urteko aurrekonturik ez dagoenez gero, fiskalizatu diren urtaldietako inbertsio guztiak estaldurazko aurrekontuzko izendapenik egin gabe gauzatu dira, legez oinarritzeko baldintza dena. Bestetik, urtealdi amaieran oniritzitako aurrekontuak ere ez ditu iada esistitzen diren obligazio horiei aurre egiteko beharrezko diren urteko edo urteanitzetarako kredituak barnehartzen (Eraskinean "Horniketa-kontratuak" ikusi).

- Ondasunen erosketan ere ez da araudia gorde, ahozko kontratuak eginez eta finkatutako prozedura orokorki batera bete gabe (Eraskinean "Horniketa-kontratuak" ikusi).
- Batzorde Orokorren eta Batzorde Iraunkorren bilera-agiriak izenpetu gabe daude 1994ko lehenengo hiruhilabetekora arte. 1991ko, 1992 (osoan zehar) eta 1993ko epe luzeetan ez da deialdi bakoitzean, aurreko bilerako agiririk oniritzi.
- Mankomunazgoaren Batzorde Orokorrak ez die 1991. urtealdiko Urteko Kontuei oniritzia eman.
- Mankomunazgoak ez du fiskalizatu dituen urtealdietatik batean ere Ondarearen Administrazio-Kontua oniritzi, 1990ean ondasunen zerrenda egin bazuen ere.
- Mankomunazgoak defizit-egoeratik eratorritako likidezia eza onbideratzeko, urtero berritzen duen epe motzerako kreditu bat hitzartu du (25 milioi pta. 1991n eta 75 milioi pta. 1993ko berriztaketan). Araudiak eragiketa hauek aldi baterakoak eta urtebetetik beherako iraupenekoak izan behar dutela agintzen du (Toki Ogasunen 5/89 Foru Arauaren 51.1.b. art.)

Aurrez esandako guztiaren ondorioz, Mankomunazgoak ez duela bertako ekonomia-finantzazko jarduera araupetzen duen lege-araudia bete ondorendu dugu.

2.1.2 GASTU PUBLIKOAREN ARRAZOIZKOTASUNAZ

Geure lanaren hedapenean gauzazko mugak izan ditugulako, ezin izan dugu Mankomunazgoak ematen dituen zerbitzuen eraginkortasun eta zuhurtasunari buruzko azterlanik mamitu, eta honenbestez, ez dezakegu gure Legearen 9.4.b artikulua agintzen duenari jarraiki, osotasunezko iritzirik azaldu. Halaz ere, fiskalizatze-lanean azaleratu zaizkigun egintza aipagarriak txosten honetako 2.4 idazpuruan daude jasoak.

2.1.3 MANKOMUNAZGOAREN KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Kontuetaratu ez diren eragiketengatik egin beharreko zuzenketak, honako hauek dira:

EGIN BEHARREKO ZUZENKETAK	Miloi-pta.
AZA.PENA	ZENBATEKOA
Paper eta beira-edukinontzien hornitzailearekiko zorra	(21,2)
Aurreko erosketagatik dirulaguntza	5,0
Zabor-zerbitzuko kontratanarekiko zorra	(17,7)
Kontuetaratu gabeko oeste ordainagiri batzuk	(5,5)
GUZTIRA	(39,4)

Aurreko taulan bildutako egoerak zuzen erregistratuko balira, 144,7 milioi-pta.ko zorrezko diruzaintza gaindikina 184,1 milioi-pta.ra arte haziko litzateke.

Gure iritzia da, azaldutako hutsak alde batera utzita, Mankomunazgoaren Kontuek egoki azaltzen dutela bertako jarduera ekonomikoa 1993. urtealdian zehar.



2.2 URTEKO KONTUAK

1. TAULA

AURREKONTU-KITAPENA-1993. URTEA

Miloi-pta

SARRERAK	HASIERAKO AURREK	ALDAKETAK AURREK	AMAIERAKO AURREK	KITATUTAKO ESKUBIDEA	KOBRA-KETAK	KOBRA-TZEKOAK	EGITERAPENA
1. Zuzeneko Zergak	-	-	-	-	-	-	-
2. Zeharkako Zergak	-	-	-	-	-	-	-
3. Tasak eta Besteiaiko Sarr	14,2	-	14,2	14,8	14,2	0,6	0,6
4. Ohizko Transferentziak	561,5	-	561,5	546,1	422,7	123,9	(15,4)
5. Ondare Sarrerak	0,1	-	0,1	0,3	0,3	0,0	0,2
6. Inb. Errealen Inorentzea	-	-	-	-	-	-	-
7. Kapital Transferentziak	293,0	-	293,0	272,7	119,1	153,6	(20,3)
8. Finantz Aktiboen Aldaketak	-	-	-	-	-	-	-
9. Finantz Pasiboen Aldaketak	-	-	-	-	-	-	-
SARRERAK GUZTIRA	868,8	-	868,8	833,9	555,8	278,1	(34,9)
GASTUAK	HASIERAKO AURREK	ALDAKETAK AURREK	AMAIERAKO OBLIGAZIOAK	AITORTUTAKO KETAK	ORDAIN-TZEKOAK	ORDAIN-TZEKOAK	EGITERAPENA
1. Langilegoari ordainketak	160,6	-	160,6	156,0	152,9	3,1	4,6
2. Erosketa eta zerbitzuak	318,1	-	318,1	324,5	149,8	174,6	(6,4)
3. Interesak	12,2	-	12,2	11,9	12,0	0,0	0,3
4. Ohizko Transf	72,1	-	72,1	62,0	53,5	8,5	10,1
6. Egiatzko Inbertsioak	305,8	-	305,8	320,2	107,3	212,9	(14,4)
7. Kapital Transferentziak	-	-	-	-	-	-	-
8. Finantz Aktiboen Aldaketak	-	-	-	-	-	-	-
9. Finantz Pasiboen Aldaketak	-	-	-	-	-	-	-
GASTUAK GUZTIRA	868,8	-	868,8	874,6	475,5	399,1	(5,8)
S-G.en ARTEKO ALDEAK	0,0	-	0,0	(40,7)	80,4	(121,0)	(40,7)

2. TAULA

ITXITAKO AURREKONTUEN ALDAKETA - 1993. URTEA

Miloi-pta.

SARRERAK/ GASTUAK	HASIERAKO ZORRA	BALIOGABETZEAK	KOBRAKETAK/ ORDAINKETAK	AMAIERAKO ZORRA
Sarrerak	189,0	0,0	104,7	84,3
Gastuak	230,2	(2,0)	154,1	74,1
S-G.en ARTEKO ALDEAK	(41,2)	2,0	(49,4)	10,2

3. TAULA

DIRUZAINZTA GAINDIKINA ETA AURREKONTUZKO EMAITZA - 1993. URTEA	Miloi-pta.
1 AURREKONTU ARRUNTA 1993	
Kitatutako Eskubideak	833,9
A.ortutako Obligazioak	(874,6)
EMAITZA SUPERABITA / (DEFIZITA)	(40,7)
2 ITXITAKO AURREKONTUAK	
Sarrerak Baiogabetzea	(0,0)
Gastuak Baiogabetzea	2,0
EMAITZA SUPERABITA / (DEFIZITA)	2,0
URTEALDIAREN EMAITZA (1)+(2)	(38,7)
3 HASIERAKO DIRUZAINZTA GAINDIKINA	(106,0)
DIRUZAINZTA GAINDIKINA ITXIERAN (1)+(2)+(3)	(144,7)

4. TAULA

DIRUZAINZTA GAINDIKINA GAUZATZEA	Miloi-pta.
AURREKONTUZKO KUTXA	(33,9)
ZORDUNAK	
- Aurrekontu Arrunta	278,1
- Itxitako Aurrekontuak	84,3
GUZTIRA	362,4
HARTZEKODUNAK	
- Aurrekontu Arrunta	(399,1)
- Itxitako Aurrekontuak	(74,1)
GUZTIRA	(473,2)
DIRUZAINZTA GAINDIKINA ITXIERAN	(144,7)

5. TAULA

DIRUZAINZTA KONTUA ETA AURREKONTUZ KANPOKO ERAGIKETAK	Miloi-pta.			
DIRUZAINZTA	HASIERAKO DIRUZAINZTA	KOBRAKETAK	ORDAINKETAK	AMAIERAKO DIRUZAINZTA
Aurrekontuzko diruzaintza urtar 1	(64,8)	-	-	(64,8)
Sarreraren Aurrekontua	-	555,8	-	555,8
Gastuen Aurrekontua	-	-	(475,5)	(475,5)
Itxitako Aurrekontuen Sarrerak	-	104,7	-	104,7
Itxitako Aurrekontuen Gastuak	-	-	(154,1)	(154,1)
Aurrekontuak Guztira	(64,8)	660,5	(629,6)	(33,9)
Atzekipenak	0,0	58,9	(53,2)	5,7
Diruzaintzako Eragiketak	75,0	0,0	(0,0)	75,0
Beste batzuk	0,0	2,3	(2,3)	0,0
Aurrekontuz kanpoko guztira	75,0	61,2	(55,5)	80,7
DIRUZAINZTA	10,2	721,7	(685,1)	46,8

2.3 FINANTZ EGOERARI BURUZKO IRIZPENAK

Mankomunazgoak gaur egun finantz egoera oso kaxkarra du, segidan laburbildua azalduko duguna:

1.- 144,7 milioi pta.ko zorrezko diruzaintza gaindikina (edota egindako zuzenketen arabera, 184,1 milioi pta.koa, aurreko 2.1.3 atalean adierazi bezala).

Bigarren kopuru honek Mankomunazgoak 1993rako duen Aurrekontuaren % 21a osatzen du, eta gutxigora behera mankomunazgoan bildutako udalen finkatutako Aurrekontuaren % 5a.

Mentsa hiru jardunbide motak eragin dute:

- a) Gauzatu ez diren eta geroko urtealdietan baliogabetuak izan diren dirusarrerak erasota uzteak.
- b) Formaz orekatuak izan arren, egitez desorekatuak ziren aurrekontuak oniritzteak, egin gabeko dirusarrerak barne-hartzen baitzituzten (gogoan izan Aurrekontua beti urtealdi bereko abenduan oniritzi dela).
- c) Gastuak, oniritzitako aurrekontuzko diru-izendapenen gainetik egiteak.

Guzti honen ondorioa, udalei egindako gastuak finantzatzeko beharrezko izango ziratekeenak baino kuota baxuagoak eskatzea izan da.

Segidako taulan Mankomunazgoak azken lau urteetan izan duen mentsaren bilakaera jaso dugu, urteko emaitza eta itxieran diruzaintza-gaindikina bereiziaz. Urtealdi bakoitzean kontuetaratutako kopuruak eta HKEEak zuzendutakoak adieraziko dira:

Urtea	Milioi-pta.			
	Liburuen arab.		Egiazkoa	
	Emaitza	Diruz.gaind	Emaitza	Diruz.gaind
1989		13,7		13,7
1990	2,4	16,1	(49,0)	(35,3)
1991	(14,9)	1,2	(30,6)	(65,9)
1992	(107,2)	(106,0)	(65,2)	(131,1)
1993	(38,7)	(144,7)	(53,0)	(184,1)

1990ean egiazko mentsaren arrazoirik nagusiena, Diputazioaren 46,9 milioi-pta.ko dirulaguntza bat kobratzeko modura erregistratzea izan zen, 1992an kontularitzan baliogabetua izan zena.

1991n, kontularitzazko Liburuetan iada aitortua zegoen 14,9 milioi pta.ko mentsaz gain, kobratzeko zegoen kopuru gisara 15,3 milioi pta.ko mailegu bat jaso zen, gerora kontratatu ez zena eta 1992an baliogabetu zena.

1992an, Liburuetan adierazitakoa baino egiazko ments txikiagoa dago, urte horretan hartu baitzuen Mankomunazgoak aurreko bi lerroaldietan adierazitako dirusarrerak baliogabetzeko

erabakia. Urte horretako egiazko mentsa urtealdi amaieran Aurrekontu desoeraketa oniritzetik eratorri da (gauzatuko ez zirela jakina zen dirusarrerak jaso ziren aurrekontuan eta egitez, ez ziren kobratzekotzat hartu, esate baterako, 40 milioi-pta. Udalkutxan, jaso ziren 30 milioi pta.ren aldean). Hemen sartu dugu, orobat, 2.1.3. atalean proposaturiko zuzenketei dagokien atala.

1993ko Liburuen mentsa ondoko hauek eragin dute:

- Atletismo-pista egiteko Foru Diputazioaren 20,3 milioi pta.ko dirulaguntza bat egoera ez eskagarrira aldatzea.
- Obra berean, 14,3 milioi pta.ko zenbatekodun gehiegizko gastuak.
- Etxerako laguntza-zerbitzuan gastatutako gehiegizko 8 milioi pta.
- Guztizko zenbatekoa osatu arteko beste desbideraketa txiki batzuk.

Liburuetako datuen eta egiazko mentsaren arteko aldea, 2.1.3. atalean proposaturiko zuzenketei dagokie.

2.- Mentsaren arazoari mankomunazgoan bildutako udalek ordaintzeko erakusten duten berankortasuna erantsi behar zaio.

1993ko itxieran kobratzeko ondoko kopuru hauek daude, aurrekontu arrunta eta itxitako aurrekontuak batuaz:

	Miliones-ptas.
Udalak	213,6
Uren Patzuergoa	73,0
Foru Diputazioa eta Eusko Jaurintza	75,2
Beste batzuk	0,6
Guztira	362,4

Udaletako zorrek txarrerako bilakaera izan dute, 1994ko uztailean arte kobraketak % 20koak soilik izan direlarik.

Honi, zenbait udalek 1994. urtealdiko kuotak ez ordaindu izana erantsi behar zaio. Inoiz, Osoko akordioen forma ere hartu dute, Mankomunazgoari ordaindu beharreko kotizazioak bertan behera uzteko erabakiaz; erabaki honekin, ordea, ez diete uko egiten zerbitzuak jaso eta dagozkion zergak ordaintzeari. Akordio hauek ezin babes daitetzke, estatuaren edota ekonomiazko arazoizkotasunaren ikuspuntua oinarri hartuta.

3.- 1. eta 2. atalean azaldutako egoerek duten eraginaren ondorioz, Mankomunazgoa zerbitzuak ematen dizkieten beste batzuekin zor handiak izatera behartua dago; zor horiek, maiz, lehenagoko urtealdietatik datozenak dira.

Gaur egun Mankomunazgoa, arazoari irtenbidea emateko udalen zor guztiei -pilatutako mentsa eta ordaintzeko dauden kuotak- data zehatz batera arte, beharbada 1994ko abenduaren 31, aurre egingo dien 13 urtetarako kreditua negoziatu asmotan dabil. Maileguaren amortizazioa udalek hilabeteko kuota gehigarrien bitartez ordainduko lukete, guzti hori zorra epe laburragoetan ordaintzea nahiago duten udaletarako bestelako irtenbide egokiagoak aurkitzea kaltetu gabe.

Irtenbide hau -ez da bakarra, jakina- egungo legediaren aurka dator, honek ez baitu mota honetako maileguak kontratatzen uzten, baldin eta kontratatzen dituen toki erakundeak ez baditu gelditzen zaion legealdi-epean amortizatzen. Beharrezkoa izango litzateke Bizkaiko Batzar Nagusiek aurrez baimena ematea eta, arrazoizkoa jakina, Mankomunazgoa osatzen duten udalek aurrez erazko konpromezua hartzea.

Orobat, merezi du egungo araudiak Bizkaiko Foru Diputazioari aitortzen dizkion babes-eskumenak gogora ekartzea. Erakunde honek jarrera aktiboagoa hartu beharko luke Mankomunazgoaren arazoaren aurrean, aurrekoa bezalako irtenbideren bat proposatuaz; besteak beste, foru erakundeak berak aurrerakin itzulgarri bat eman liezaioke, mankomunazgoan bildutako udalek jaso beharreko Udalkutxako dirufondoetatik itzuliko litzatekeena.

Aurreko proposamena bat dator gainera, gaur egun bideratzen ari diren Udalez gainera Erakundeei buruzko Foru Arauaren proposamenarekin.

Orobat, Mankomunazgoarentzat onartezinak dira kotizazioak ez ordaintzeko hartutako akordioak, besteak beste, dagozkion gastuak eten ez direlako. Halakoetan, Udalkutxako ordainketetan atxekipenak egitea gomendatzen dugu, estatutuetako 22. art.ak eta aipatutako Foru Arauaren egitasmoak agintzen duten moduan.

2.4 BARNE-KONTROLERAKO SISTEMEI BURUZKO BESTELAKO IRIZPENAK

AURREKONTUA

Inongo erakunde publikok ez dezake urteko aurrekonturik oniritzi gabe bere jarduera zuzen bete; aurrekontu horrek gainera, beti eskuragarri egon behar luke urtealdi ekonomiko bakoitzaren hasieran.

Esandako honek guztiak, garrantzia handiagoa hartzen du mankomunazgo batean, sarrera eta gastuen aurrikuspena ezagutzea ezinbestekoa baita mankomunazgoan bildutako udalek garaiz beren aurrekontuetan dagozkien kopuruak egoki ditzaten (batipat, ordaindu beharreko kuotak).

Mankomunazgoak gaur egun arte jarraitu duen bidea -aurrekonturik gabeko gastuak egin eta urte amaieran kuoten behin-betiko kitapen bitartez gastuen guztizkoarekin dirusarrerak

egokitzea-, legearen aurkakoa da eta finantz-ikuspuntua oinarri hartuta arrisku handiko jokabidea, egiazko diren gastuak zalantzazko kobragarritasuna duten dirusarrereri -eta halaxe izan da- aurrejartzen baitzaizkio.

Aitzitik, dirusarrereren kopurua aurrekontua egiteko prozesuan urtea hasi aurretik zorrotasunez egokitu behar da, gastuen kontua finantzaketa-maila hori abiaburu hartuta eginaz, eta hala balegokio, gastuen aurrekontua eskuratutako sarrereren egiazko mailara egokitzeko aurrekontuzko aldaketak oniritziaz.

1994ko aurrekontua premiaz aurkeztea eta 1995ekoa prestatzea, berehala ekin beharreko oinarrizko eginkizunak dira.

2.1.3 atalean aipatutako 1993ko Kontuen gaineko zuzenketei dagokienez, kopuru horiek, baldin eta 1993ko Kontuetan zuzentzen ez badira, gutxien-gutxienik gogoan hartu beharko dira 1994ko aurrekontua egitean.

Urtealdiren bateko aurrekontua garaiz oniritzik ez balitz, zorrotasunez bete beharko da aurrekontuaren luzapena, bertan beti sarrera eta gastuen arteko orekaren printzipioa bermatu beharko dela.

ADMINISTRAZIO ETA KONTULARITZAZKO PROZEDURAK

Mankomunazgoko zerbitzu orokorren administrazio-egitekoek funtzionamendu-maila ona erakusten dute eta egindako lana arduraz eta txukun egina da. Berebat, langilegoak espedienteak aztertu eta hobekuntzak egiteko jarrera baikorra azaldu du.

Ikuskatu ditugun urteetan Mankomunazgoaren kontabilitatearen gainean borobildu dugun iritzi orokorra ere baikorra da eta bertako jardute-egitura ere, zerbitzuen arabera, zuzena dela uste dugu. Kobraketa eta ordainketen gainean egiten den jarraipenari egoki irizten diogu eta bereziki, horiek guztiak banketxeen bitartez egiteari, hau da, «lehiatila» bitartezko kobraketa eta ordainketarik ez izateari. Kontuen erregistroak behar bezala daude agiri bitartez cutsiak.

Alderdi txar modura, kudeaketazko ondorioetarako egiaz erabilgarria izatea nahi bada, kontularitza-lana egunero-egunero egiteak duen garrantzia azpimarratu behar da. Zehatzago esanda, eta hein batean sistema informatikoa aldatzeak berak dakartzan oztopoengatik, 1994ko kontabilitate gutzia Txosten hau egin den datan erregistratu gabe dagoela esan behar da.

Litekeena da zerbitzu orokorren alorrak giza baliabideen mentsa izatea, bete beharreko prozeduraren lege-alderdia ardua handiagoz egitea eragozten duena; alor horretan, beste zerbitzu batzuetan atxekitako administrazio-langilegoa erabiliaz eta plantila hazi gabe, langilego kopurua handiagotzea gomendatzen dugu.

Gastu guztiak jardute-sail eskumendunak baimendu behar ditu eta ordainketa guztiak lehendakariak oniritzi. Bi kasuetan ere, proposamenak aurrez Idazkari-Artekariaren aldetik fiskalizaziogai izango dira, eta baita erabakirik hartzea eskatzen duen eragin ekonomikodun bestelako zein-nahi egintza ere.

1994ko kontabilitatea ahalik eta azkarren eta premiaz eguneratu.

Kontabilitatea, beste ezer baino lehen, informazio eta kudeaketarako tresna dela oinarri hartuta, Batzorde Orokor eta Batzorde Iraunkorrek hainbatero jaso beharreko finantz-egoerak finkatu (esate baterako, hiruhilabeteko egiterapen-egoerak lehenengo aldian, eta hilabetekoak bigarrenean).

ESTATUTUAK

Egungo estatutuak TJOALera egokitzeko-1995erako gauzatzea aurrikusia dagoena- berrikusten direnean, ondoko alderdion arreta berezia eskaintzea gomendatzen dugu:

Mankomunazgoaren Batzorde Orokorrek berau osatzen duten udalen ordezkari izan behar du, kide bakoitza bere udalaren izenean dagoela garbi utziaz.

Mankomunazgoaren jardute-sailen arauketa hobetu.

Mankomunazgoko jardute-sailek hartzen dituzten akordioek zein eratarik behartzen dituzten udalak zehaztu, hau da, Batzorde Orokorrek hartutako Akordioak mankomunazgoan bildutako udalak horiek onartzera behartzeko modua.

Mankomunazgoaren jarduera garatzeko hartzen diren akordio oinarrizko eta garrantzitsuak udaletako Osokoek, hala dagokionean, egiaztatzeko beharra aztertu.

Mankomunazgoaren ondarea kitzatzeko irizpideak eta baldin eta desegingo balitz, eskubide, obligazio eta langilegoaren norakoa noren gain geldituko litzatekeen argitu.

Ekarpenak murriztu, zerbitzuak gutxitu eta neurritz gaineko plantilari eusteko arriskuan gertatuz gero, udalen bat banatzearen ondorioak zehaztu.

Eman beharreko zerbitzuak finkatu, gerora begira mankomunazgoarentzat interesgarri izan litezkeen zerbitzu berriak hartzeko zerranda irekiari eusteko sistema gordetzea kaltetu gabe.

Kuoten kalkulua eta horiek eskatzeko unea zehaztuko duen finantz-sistema argia moldatu, ordainketetan egon daitekeen edonolako atzerapenekin zorrotza izango dena.

ZERBITZUAK

Estatutuek zerbitzu bakoitza araupetuko duen berriazko Araudia izatea aurrikusten dute, Mankomunazgoak, ordea, ez du hatere araudirik idatzi inongo zerbitzuetarako.

Mankomunazgoak ematen duen zerbitzu bakoitza araupetuko duten araudiak eztabaidatu eta idatzi.

GIZA BALIABIDEAK

Mankomunazgoaren plantila 1994ko uztaillean honako hau da:

Administrazioa	3
Gizarte Ongizatea	9
Zabarrak	19
Egite-bidezko heziketa	2
Velodromoa	1
Guztira	34

Egungo langilego-erregistroak, langileen banan-banako datuak eta kontratuen alta, baja eta luzapenen datak jasotzen dituen txartel banakakotuen bitartez, ez du osotasunean langilegoaren administrazio-bizitzaren egintza guztiak isladatzeko legezko eginbeharra betetzen.

FISKALARITZA

Fiskalaritza alorrean erakutsitako jarduera zuzenaren salbuespen modura, Mankomunazgoari zerbitzu eman dioten zenbait norbanako eta ogasun-elkargori dagozkion NUIZaren atxekipenak ez zaizkiela egin azpimarratu behar dugu.


Zenbait kasu zehatzetan beste batzuei legezko baldintzak betetzen ez zituzten ordainagiriak ordeinduzazkie -ordainagiriaren zenbaketa eta BEZik gabe aurkeztea-, eta inoiz ordainagiririk gabeko ordainketak ere egin dira (Udalaitz elkarteari).

Ez da Foru Ogasunean Beste Batzuekiko Harremanen 348 eredupeko agiria aurkeztu.

ONDASUN ZERRENDA

Mankomunazgoaren ondasunen zerrenda 1990. urtean egin zen Bizkaiko Foru Diputazioaren dirulaguntzarekin, gaur arte eguneraketarik egin ez zaiola.

Igarotako urteen gaineko ondasun zerrenda gaurkotu, hartara herri-diruarekin finantzaturiko inbertsio batek duen balio guztia galdu ahal izatea eragotziaz.



IBILGAILUAK

Gaur egun mankomunazgoaren ibilgailuen gainean egiten diren kontrolak -zaborrentzako zein pertsonen garraiorakoak- ez direla behar adinakoak uste dugu.

Ibilgailu guztiek, dagokion zerbitzuko arduradunaren gainbegiratuarekin, kontrolgai izan behar dute, gutxien-gutxienik ondoko informazioa bilduz:

- Egunero egindako kilometro-saila eta, beharrezko denean, horren egiaztagiria.
- Errekai kontsumoa.
- Historial teknikoa, mantenua eta konponketak.

Biltokiko gasoil-kontsumoaren hainbateroko ordainagiriak beti, fitxa horietatik erator daitezzen kontsumoen batuketarekin loturik jarri beharko dira.

ARRAZOIBIDEAK

Ohizko eginbideari jarraiki, txosten hau behin-betiko oniritzia izan aurretik, Mankomunazgoari eta bertako aurreko Lehendakariari, egoki iritzitako arrazoibideak aurkez zitaten igorri zitzaien. Mankomunazgoak igorritako gutun bitartez, zuzenketa-eskerik egiteko arrazoirik ez duela adierazi du eta ez duela arrazoibiderik aurkeztuko. Aurreko Lehendakariak ere ez ditu bereak aurkeztu eta, honenbestez, txosten hau arrazoibideak azaltzeko gordetako idazpururik gabe zabalduko da.

1. INTRODUCCIÓN

1.1 TRABAJO REALIZADO

Con fecha 4 de mayo de 1994 se recibió en este Tribunal Vasco de Cuentas Públicas (en lo sucesivo, TVCP) una solicitud para la realización de una auditoría en la Mancomunidad de la Merindad de Durango (en lo sucesivo, la Mancomunidad), firmada por el Presidente de la misma.

El TVCP ha accedido a la petición incluyendo esta fiscalización como modificación del Programa Anual de Trabajo aprobado para 1994.

La fiscalización ha consistido en:

- La revisión del cumplimiento de la normativa legal en los cuatro ejercicios que van desde 1990 a 1993.
- La auditoría financiera de la Cuenta General del ejercicio 1993, extendiendo las comprobaciones a los tres ejercicios anteriores cuando la información obtenida lo hacía aconsejable.
- Un análisis de cómo se ha generado el déficit acumulado que la Mancomunidad tiene a 31 de diciembre de 1993 y de su situación financiera en julio de 1994.

Existe un Plan de Trabajo recientemente presentado a la Junta Permanente de la Mancomunidad por el actual Presidente, donde se describen algunas líneas de actuación que se compromete a llevar a cabo en plazos prefijados, y que muchas veces son coincidentes con las recomendaciones de este informe. Invitamos a su cumplimiento estricto como forma de mejorar la situación y procedimientos actuales de la Mancomunidad.

Queremos destacar, por último, la colaboración prestada en el desarrollo del trabajo por el Presidente de la Mancomunidad y por el personal de la misma.

1.2 DESCRIPCIÓN DE LA MANCOMUNIDAD DE LA MERINDAD DE DURANGO

La Merindad de Durango fue la última comarca del País Vasco en perder su personalidad autónoma. Durante siglos celebró sus propias Juntas Generales en Gerediaga, y tuvo su propio Fuero hasta diciembre de 1875 con la supresión del régimen foral.

La actual Mancomunidad de la Merindad de Durango se constituye en febrero de 1971, y los estatutos vigentes son del año 1981. Modificado el régimen local por la Ley 7/85 reguladora de las Bases de Régimen Local (LRBRL), no se ha producido todavía la adaptación de los estatutos a la nueva regulación legal.

La Mancomunidad está integrada por los ayuntamientos de Abadiño, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Garai, Iurreta, Izurza, Mañaria y Zaldibar.

Los servicios que presta y las actuaciones que desarrolla son los siguientes, indicando en cada caso su presupuesto en 1993, las subvenciones y recursos propios presupuestados, y la diferencia de financiación a cubrir a través de cuotas de los ayuntamientos mancomunados:

	Millones-ptas.		
	Ppto 1993	Subvenc y Rec prop	Cuotas aytos
Servicios generales y órganos de gobierno	34	0	34
Basuras	199	0	199
Bienestar social	177	141	36
Formación ocupacional	73	41	32
Prestación de otros servicios	26	5	21
Obras pista de atletismo y triñete	301	180	121
Saneamiento (por cuenta del Consorcio de Aguas)	59	59	0
Udalkutxa	-	34	(34)
Total	869	460	409

Como puede observarse, la Tasa de Basuras es gestionada y recaudada por los ayuntamientos mancomunados, sin que se haya producido su cesión a la Mancomunidad.

Los fondos recibidos de Udalkutxa se presentan en línea aparte al tratarse de un ingreso no afectado a ningún servicio específico.

Los Plenos de los ayuntamientos deciden, en cada caso, en qué servicios mancomunados participan y en cuáles no. Excepcionalmente, algunos ayuntamientos no mancomunados desarrollan ciertos servicios a través de la Mancomunidad.

La financiación entre los municipios de los gastos de la Mancomunidad se hace como sigue:

- Los gastos generales y de órganos de gobierno, según los presupuestos anuales de ingresos de cada ayuntamiento.
- Los gastos de los diferentes servicios, según el número de habitantes de los municipios receptores.

La dotación de personal en diciembre de 1993 era de 47 personas, de las cuales 25 eran personal laboral fijo y 22 personal laboral temporal, siendo los servicios con mayor número de personas los de recogida y eliminación de basuras y el de saneamiento.

En este último, sus gastos eran reintegrados por el Consorcio de Aguas de la Merindad de Durango. A la fecha de este informe, el personal laboral temporal ha disminuido en 13 personas, como consecuencia de la definitiva adscripción de los trabajadores del servicio de saneamiento al Consorcio.

La normativa legal aplicable a la Mancomunidad es la misma establecida con carácter general para todos los entes locales, como entidad local de carácter supramunicipal.

2. CONCLUSIONES

2.1 OPINIÓN

2.1.1 SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LA LEGALIDAD

- El presupuesto anual se aprueba, en los años 1991 al 1993, en la última semana del ejercicio a que se refiere su vigencia, perdiendo así todo carácter de documento planificador de la actividad económica.

Las limitaciones fijadas para estos casos, y referidas a la obligatoriedad de prorrogar el anterior presupuesto, no han sido respetadas.

El presupuesto para 1990 no fue aprobado por la Junta General.

- No se fiscalizan los gastos ni los pagos con carácter previo a su realización, ni tampoco queda constancia de su aprobación por el órgano competente: los mandamientos de pago, en general, no tienen ninguna firma.
- La Mancomunidad no ha confeccionado ni aprobado la Relación de Puestos de Trabajo (art. 90 de la LRBRL, 16 de la Ley de Reforma de la Función Pública, y 13 y ss. de la Ley de la Función Pública Vasca). La Plantilla presupuestaria, que debe contener todos los puestos de trabajo reservados a funcionarios, personal laboral y eventual, tampoco ha sido aprobada en ninguno de los presupuestos de los años objeto de la fiscalización.
- No se han respetado los procedimientos legales de acceso de personal a la Administración Pública. La Oferta Pública de Empleo, que debe servir de base para la selección de personal garantizando los principios de igualdad, mérito y capacidad, no ha sido aprobada por la Mancomunidad en ninguno de los ejercicios fiscalizados.

No se ha producido ninguna convocatoria pública de selección y la Junta General no ha acordado, en muchas ocasiones, las contrataciones de personal realizadas.

También consideramos que se ha producido un fraude de ley en la conversión del personal laboral temporal en personal laboral fijo, principalmente mediante la técnica de prorrogar los contratos temporales hasta el máximo establecido legalmente para su conversión en indefinidos, consumándose un fin prohibido por el ordenamiento jurídico.

- La Secretaría-Intervención de la Mancomunidad se encuentra cubierta con personal laboral, en contra del requisito legal de que se ocupe por un funcionario de habilitación nacional (art. 92 de la LRBRL).

Los estatutos establecen que este cargo podrá ser desempeñado por cualquiera de los secretarios de los Ayuntamientos mancomunados, mientras no tenga dedicación exclusiva (no se ha adoptado acuerdo expreso en este sentido).

- No hay nombrado Tesorero de la Mancomunidad.
- El sistema aprobado de disposición de los fondos bancarios, seis firmas autorizadas de las que dos o tres cualesquiera son suficientes para los pagos (se pasó a esta segunda opción en marzo de 1994) carece de soporte legal. Los pagos deben ser firmados por el Secretario-Interventor, el Presidente y el Tesorero.

- La normativa de contratación de servicios públicos ha sido incumplida en general, ya que numerosas adjudicaciones se han hecho sin convocatoria pública ni petición de varias ofertas. Los expedientes son incompletos o, incluso, inexistentes, y muchos de los acuerdos no han sido aprobados por los órganos competentes. (Ver «Contratos de servicios» en el Anexo).
- La normativa de contratación de obras no ha sido respetada en numerosas ocasiones, destacando como incumplimientos más graves el fraccionamiento de los contratos, la no exigencia de clasificación a los contratistas, y la no realización de comprobaciones del replanteo.

Al no existir presupuesto anual, todas las inversiones de los años fiscalizados se han llevado a cabo sin consignaciones presupuestarias de cobertura, requisito legal previo que es esencial. Por otra parte, ni siquiera el presupuesto aprobado al cierre del ejercicio incluye los créditos necesarios, anuales o plurianuales, para cubrir estas obligaciones ya existentes. (Ver «Contratos de obras» en el Anexo).

- En las adquisiciones de bienes tampoco ha sido respetada la normativa, realizándose contratos verbales y con ausencia general de cumplimiento del procedimiento establecido. (Ver «Contratos de suministros» en el Anexo).
